

Katu jendea



Igartza saria

Egilea: Eider Rodriguez Martin

Bilduma: Literatura 295

Salneurria: 14,80 €

Orrialde kopurua: 160

Kaleratze data: 2010eko apirila

Ondoz ondoko lursailetan bizi diren andre-gizon bakarti bi, euren katuen harremanek elkartuak; eroritako hagin baten ondorioz eskolako lagun ahaztuarekin topo egitera beharturiko erizaina; opor-rak gurean pasatzera datorren haur sahararrak etxekoen artean eragindako aztoramena; bi lagun errepidean, berriketa axolagabea; Parisen aberats izatera jolasten diren neska gazte pare...

Hemen eta gaur giroturiko zazpi istorioetan barrena, gizon-emakumeen sentimendu esan gabeko eta ahultasun ezkutuetan arakutzen du **Eider Rodriguezek**: desiraren zirrikituak, edertasunaren on-gaitzak, diruaren morrontzak, sexualitatearen erretzea, ilusioen itzaltzea... Lurralde lanbro-tsuetan mugitzen dira ipuin hauek, luma bisturitzat harturik, kontaturikoa bezain inportatea dutelarik isildurikoa.

Eider Rodriguez 1977an jaio zen Errenterian. Publizitatean lizentziatua. Editore, kazetari, gidoilari eta irakasle lanetan jarduna. Bi ipuin-liburu kale-ratu ditu orain arte: *Eta handik gutxira gaur* (2004) eta *Haragia* (2007).

Idazlearekin hitz egiteko jarri harremanetan: Josebe Ormazuri
943 310267 edo jormazuri@elkar.com



Igartza Sariaren historia

Lehen urtean: Julen Gabiria: *Connemara gure bihotzetan*

Bigarren urtean: Xabier Etxeberria: *Egun denak ez dira berdin*

Jasone Osoro: *Korapiloak* (akzesita)

Hirugarren urtean: Fernando Morillo: *Ortzadarra sutan*

Laugarren urtean: Unai Elorriaga: *Van't Hoffen ilea*

Bosgarren urtean: Julen Gabiria: *Han goitik itsasoa ikusten da*

Seigarren urtean: Asel Luzarraga: *Karonte*

Zazpigarren urtean: Karmele Jaio: *Amaren eskuak*

Peru Magdalena: *Lile* (akzesita)

Zortzigarren urtean: Uxue Alberdi: *Aulki bat elurretan*

Bederatzigarren urtean: Jon Martin: *Ero*

Hamargarren urtean: Katixa Agirre: *Habitat*

Irati Jimenez: *Nora ez dakizun hori* (akzesita)

Hamaikagarren urtean: Eider Rodriguez: *Katu jendea*

Hamabigarren urtean: Uxue Apaolaza (argitaratzeko)